

Nola aurrea hartu eskola-porrotari?

Gaur egun, ikasle batek bere maila eta adinerako proposatutako eskola helburuak lortzen ez dituenean eskola-porrota ematen dela esaten da. Eskola-porrotak edo nota txarrek beti ez dute esan nahi haurrak helburu akademikoak lortzeko adimen gaitasunik ez duenik; batzuetan, motibazio faltaren ondorioa izan daitezke edo ikasteko estrategia egokirik ez duelako erabiltzen.

Eragina izan dezaketen faktoreak hurrengoak dira:

- Adimen faktoreak: bokabulario eza eta irakurtzeko ohitura eza.
- Motibazio faktoreak: ikasteko jarrera positiboa ez dagoenean.
- Esfortzu eza: behar baino denbora gutxiago erabiltzen denean etxeko lanak egiteko, kontzentrazio eta ulermen maila gutxiagorekin.
- Faktore organikoak: eskolara egunero joatea eragozten dioten gaixotasun fisikoak.
- Faktore emozionalak: seme-alabak gehiegi babestea eta afektibitate eza.
- Ikasteko ohitura eta teknika eza: haurrek nola ikasi jakin behar dute eta horretarako ikasketa teknikak egoki erabili behar dituzte, une eta toki egokietan.
- Kanpo faktoreak: telebista, bideojoko edo kontsolen erabilera desegokia.

Familia eta irakasleen arteko kolaborazioa eta komunikazio jariakorra ezinbestekoa da, jarduerak eta eguneroko etxeko-lanak ezagutuz. Horregatik, hurrengoa hartu behar da kontuan:

1. Batzuetan, seme-alabak arazoak dituela onartu behar da.
2. Seme-alabari bera den moduan onartzen eta maite dugula adierazi behar zaio eta ez bere lorpenengatik.
3. Kontuz ibili behar dugu bere etxeko lanak geuk egitearen akatsarekin, laguntzen ari garelakoan.
4. Bere buruarenganako konfiantza sustatu: zerbait galdetzen dutenean, konponbide bat elkarrekin bilatzea proposatu, erabakiak hartzen eta erantzukizunak baneratzeko utziz.
5. Ez konparatu familiako beste senitartekoekin.
6. Koherente izan, irakurtzeko eskatzen badiogu, guk ere irakurri behar dugu.
7. Ez igorri mezu negatiborik, esaterako: “ez duzu balio”, “ikasle txarra zara”, etab. Bestalde, bere lorpenak goraiatu nahiz eta oso txikiak izan.
8. Ez mehatxatu beteko ez diren zigorrekin. Saiatu beti gauzak adosten eta akordioak lortzen.

9. Eguneroko ikasketa ohitura batzuk antolatu eta burutu. Denbora tarte bat aukeratu etxeko-lanak egiteko eta beste bat atsedena hartzeko.

Familiak bere eguneroko bizitzan jarraitzeko eredia izan behar du, seme-alaben bizitzan positiboki motibatuz, adibidez, ezagutzarekiko, irakurketarekiko eta eskolarekiko jarrera positiboa, afekzioko erlazio orekatua mantenduz, eskola errendimendua bata edo bestea izanda ere eta lanean lagunduz, trebetasunak eta gaitasunak azpimarratuz. Etxeko lanak egin behar dituztela bultzatu behar da, “egin dezaketen” zerbait delako eta, gainera segurtasuna emango dielako.

LABURPENA

Eskola-porrotako tasak kontuan hartuz, oso garrantzitsua da hezkuntza sistema aldatzeko estrategia sozial edota politikoez gain, familiei eta haurrei giltzarri batzuk ematea, euren gaitasun intelektualak garatzeko eta behar bezala sustatzeko. Ikasketetan porrot egiteak, gainera, beste arazo batzuk dakartza: autoestima arazoak, oreka emozionala, soziala, etab.

Dra. Ainhoa Manzano Fernández
Dr. Juan Luis Martín Ayala
ETXADI
Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia